

euskararen normalizazioa

euskararen batasunetik normaltasunera

Zertarako euskararen batasuna?

Hainbat urtetako eztabaida eta burruken ondoren, galdera horrek jendea berriro asaldatu-asmoa besterik ez dakarrela esango litzateke. Asaldatu, ez du asaldatu nahi; baina galdera hor dago, zerbaiten kezka adierazi nahian.

Halaxe da, hain zuzen ere. Urte askotan ibiliak gara. euskara batua gora, euskara batua beheara. Eta bide nahiko handia urratua dugu. Euskaltzaindia gidari: luzea da oraindik irekitzeko. Eta berriro ere Euskaltzaindiari eskatu beharko diogu bere gidaritza bete dezan.

Hizkuntzaren batasuna—euskara, guri dagokigunez—ez da garai jakin eta mugatu batetan burutzen den ekinaldia. Hizkuntza ez da zera estatikoa; hizkuntz elkar-tearen historiaren dinamika osoko elementu dinamikoak baizik.

Bestalde, euskararen batasuna—euskara batua—ez da azken helburua; ez du bere baitako xederik. Euskal Herriaren hizkuntza nazional bihurtzeko urrats behinena eta oinarritzakoa besterik ez da batasuna. Hori da helburua: Euskara benetan Euskal Herriaren hizkuntza nazionala izatea. Elkarre nazionalaren batasuna lortzeko, zain-tzeko eta mamitzeko dugu gure bezala, euskararen batasuna ere etengabe lantzeko, gidatzeko eta sakontzeko dugu.

Euskararen normaltasuna da batasunaren ondorioa eta jarraipena. Horregatik, azken aldian, normal-kuntza hitza nagusitu zaio euskararen batasunari. gure hizkuntza nazionalaren aurrerabidea adierazteko.

Hizkuntza nazionala egin

Arazo osoaren funtisa hizkuntza nazionalaren datza... Edo euskara-
ren "proiektu nazionala". Josu Landaren hitzekin esanda. Hortik abiatu zen. 1964an, euskara batua-
ren aldeko mugimendua; gero Ermu-
an sendotu; 1968ko urte har-
tan Arantzazun gidatu eta bede-
inkatu; eta hamar urteretan buruan.
Bergaran berretsi eta finkatu.

Euskara batua eta normalduak
esangura "politikoa" du, zergatik
uka? Euskararen politika nazio-
nala, hain zuzen ere. Euskal He-
rriaren batasun nazionala aitortzen
eta bultzatzen duten indar politi-
koek, sozialek eta kulturelekin onar-
tzen eta bereganatzen dute benetan
euskara batuaeren dinamika.

Gaurregun batasun-bidea zalant-
zan jartzea. Euskal Herriaren ba-
tasun-bide nazionala bera dudatan
jartzea da. Eta hogeitaz atzera
jotzea. Euskal Herriaren batasun
ekonomikoa, administrazioa, poli-

tikoa eta kulturazkoa lantzen den
arabera landuaz joango da hizkun-
tazko batasuna ere. Eta zalantza-
rik ez dago, Euskal Herriaren nor-
tasun eta batasun hizkuntzaazkoak
euskara batuaeren gain finkatu di-
rena. Frantsesa eta gaztelania Eus-
kal Herriaren banatzaileak eta zati-
katzaileak ditugu.

Eta euskalkiak?

Euskara eta euskalkiak

Hemen ez dago zertan sarturik
euskara batuaeren eta euskalkien ar-
teko harremanen arazoa. Oso
komplexua da iruditzen zaigunez.
Geure aldetik ez daukagu eragoz-
penik—guztiz alderantziz—dialek-
toen bizi beharra eta zaindu beha-
rra aitortzeko. herriaren hizkuntza
bizia—maila guztietakoa—erakus-
ten duten neurrian, eta ez dialektoa
adiera akademikoa hutsen harturik.

Euskara (batua) eta euskalkiak
elkar mugatu eta indarberritu
behar dute, etengabe dinamikan.
Ez dago esaterik, beraz, euskara
(batua), bulegoko sorkari artifiziala
eta estatikoa denik, batetik, eta
euskalkiak, hizkuntza jatorria eta
bizia, bestetik.

Hizkuntzaren alde bakoitzak
bere dinamika du, eta bi dinami-
ken arteko elkarren eragina eten-
gabe zaindu eta landu behar da.
Bide horretatik doala uste dugu
Euskaltzaindiaren pentsakera ere,
azken aldian eman dituen deklarazio-
ei begiratzen badiugu behintzat.
Baina deklarazio horiek obretara
eraman beharra dauka Euskaltz-
aindiak: eta era berean, Euskaltz-
aindiari jarraitzen dioten guztiak
hizkuntzazko jokabide konkretutan
agertu behar dute euskara (batua-
ren) eta euskalkien arteko oreka
teorikoa.

Baina besterik esan nahi genuke
hemen. Ordu da "euskara batua"/
"beste euskarak" eskema alde ba-
tera uzteko, eta "euskara euskal-
kiak" eskema erabiltzen hasete-
ko. Euskara, hizkuntza nazionala, soil-
soilik, dago, alde batetik, eta biza-
kaiera, gipuzkera, lapurtera, zube-
roera, nafarrera eta beste "era"-
guztiak dialekto euskalki bezala,
bestetik. Euskara, hizkuntza nazio-
nala, batua dagoen neurrian, bai
bestetik ez dago: amoz eta helbu-
ruz, nahiz eta oraindik burutu gabe
egon batasunaren eskema osoa, eta
euskalki bakoitzak esatekorik eta
ematekorik aski du. Beste guztiak
euskalkiak dira, euskararen oinar-
ritzak dialektoak. Inori ez zaio
bururatzen gaurregun "italiera ba-
tuaz" mintzatzea, edota Napoliko
italieraz. Trastevere-ko italieraz,
Piamonte-ko italieraz. Italia da
hizkuntza nazionalaren izena, eta
beste guztiak italiarren dialektoak

dira. Kontutan edukiz noski. Ita-
liar ez italiera eta ez horren dialek-
toak diren beste hainbat hizkuntza
bizi dela.

Euskara batua eta normalduak

Nola lotzen dira euskararen ba-
tasuna eta euskararen normalta-
suna? Hau bestea baino zabalagoa
da, askozaz zabalagoa. Euskararen
normalkuntzak alde askotatik gai-
nezkatzen du Euskaltzaindiaren
egitekoa.

Euskararen normalkuntza prozesu
osoaren oinarrian, berriz, normal-
kuntza linguistikoa bera dago. Izan
ere, hizkuntza nazional normal-
duak zera eskatzen du auzentik:
Morfologi, sintaxi, ortografi eta fon-
etika-finkotasun egokia, batetik;
eta lexiko asko bateratua, zehatua,
teknifikatua eta landua, bestetik.

Aurrena ikertzea eta erabakitzea
Euskaltzaindiari dagokio zuzen-
zuzenean eta oso-oso. Euskararen
funtsezko batasuna—eta normalta-
suna—jokatzan da hortxe, hain
zuzen. Bidea irekirik dugu horre-
tan; baina oraindik asko dago az-
tertzeko eta erabakitzeko. Ba du
hor lanik galanki Euskaltzaindik.

Bigarrena—lexikoa—euskara-
ren "kulturazko normalkuntza" oso
loturik dago. Horregatik, kul-
tur, zientzi eta teknika alor bakoit-
tzeo adituek joan behar dute lan-
daz beren mailako eta alorreko
hizkera eta lexikoa. Zalantzarik ez,
hizkuntzalariek ere zeresan handia
dutela lan horretan; eta bereziki
Euskaltzaindiak berak du hor ere
oinarritzeko gidaritza, batez ere
lexiko arunta finkatuz eta lexiko
berezituetarako funtsezko arauak
emanez. Euskal gizarteak eskubi-
dea du gaurregun. Euskaltzaindiari
bere egiteko horiek bete ditzan es-
katzeko, normalkuntza linguisti-
koan diharduten lagun, talde eta
erakundeekin batera.

Euskaltzaindiaren eginkizuna

Euskararen normalkuntza lin-
guistikoa premia larriak ditu gau-
regun, kontuan edukiz bereziki
hortxe dela oinarria, euskara bene-
tan Unibertsitatean, Administrazio-
an eta kultur eta lan alor bakoit-
tzean normaltzeko.

Horregatik Euskaltzaindiaren
eginkizuna ez da beste edozein hiz-
kuntz Akademiarren antzekoa. Eus-
karak adozin kultur eta gizarte
maila eta sektoretara sartzeko di-
tuen gaitasun premiei erantzuteko
gauza izan behar du Euskaltzain-
diak, berari dagokion neurrian be-
hintzat. Areago, normalkuntza so-
zialaren eragile izan beharko luke
Euskaltzaindiak, normalkuntza lin-
guistikoa bultzatuz.

Bi gauza eskatu behar zaizkio

gaurregun Euskaltzaindiari bere-
ziki: 1) Euskararen batasuna eta
normalkuntza linguistikoa gogoz
eta ausardiak bere eskutan har-
tzea, eta eman behar dituen oinar-
ritzko arauak emanez joatea; 2)
Bere lana eta gidaritza jokabide
irekiaz eramatea, batasun eta nor-
malkuntza horien bidetik lanean
diharduten lagun, talde eta erakun-
deei buruz baltasunez jokatzu eta
behar diren lankidetzak guztiak be-
reganatzu.

Motelduta, agian burokraziak
jota, beste hizkuntza normaldue-
tako Akademien antzeko bihurtuta
ikusten dugu gaurregun Euskaltz-
aindia. Hizkuntza zabaltzen eta
lantzen diharduten indar bizien
eragile izan beharko luke, ordea;
eta horiei erantzun.

Okerago oraindik, indar politikoa
batzuek, bere hizkuntz politikak bi-
deratu ezinean, Euskaltzaindiari
bota dioten sareetan erortzeko
ariskua dauka horrek: dagoeneko
eroria ez baldin badago. Eta ezer
izatekotan, alderdien politiketatik
librea izan behar du Euskaltzain-
diak, benetako politika nazionalari,
hizkuntza nazionalarenari, eusteko.

Instituzio publikoa—nolabait
ofiziala—izan behar du Euskaltz-
aindiak: baina bere lanean erabat
autonomoa. Hizkuntzaren alorrean
berari bakarrik dagokio arauak
ematea. Eta normalkuntzako lan-
nean dabilzan talde eta erakunde
guztiei dagokie haren arauak jarrai-
tzea.

Erakunde ofizialek, berriz, Eus-
kaltzaindia onartu eta horren
arauak betearazteko daude. be-
raien menpe dauden erakunde eta
mailatan: horrela bakarrik egin
ahal izango bait da hizkuntza na-
zionala.

Baina normalkuntza linguistikoa,
gure hizkuntza nazionalaren nor-
malkuntza osoaren oinarria beste-
rik ez da. Oso erlatiboa da euska-
raren normaltasuna, batasuna bera
erlatiboa den bezala. "Norma" edo
araua non jaritzen den ikusi behar.
Euskararen normalkuntzaren di-
mensio guztiak zehazteko puntu
honetatik abiatu behar dugula iru-
ditzen zaigu: Euskara da Euskal
Herriaren hizkuntza nazionala;
euskarak gabe ez dago Euskal
Herriak. Abiatur horren arabera,
hauxe da normalkuntza globala-
rentzako arau nagusia: Gaurko
euskaldunon eta gaurko euskal kul-
turan, gaurko euskal gizartearen
eta gaurko Euskal Herriaren hiz-
kuntza izan behar du euskarak.
Horren arabera neurtuko dugu eus-
kararen normaltasuna...

EKB

semaforo gorria

Egunotan AEKakoak berri haundi
ditugu. Portatu zarete, mutilak! Bu-
rruka bide bakarra dela sinesten du-
tenei argumentu haundia eman di-
ozuen alde. Gertatzen dena burruka
ez dela beti garaile ateratzen. Baina
ateratzekotan, bera beti, edo bestela
hutsa. Honekin ez dugu esan nahi
burruka hori bukatua denik, ez eta
irabazi duzenik ere. Semaforo gor-
riak baino hobeki dakizue hori.
Hautekudeak gaineen eta abar,
PNVeko jalekideok larri dabilta.
Hemendik bi hilabetetara, nagusi
samar aterako balira, berriz ere ba
dugu beste lau urterako komedia.
Oraingo, hala ere, erakutsi ederra
izan da. Lau urtetan hori ibili dira
AEK irentsi beharrik. Ez zuten es-
pero horrenbeste eusteko gauza
izango zinatekin. Orain bistaratu
den burruka haundi hori ez da atzo
goizekoa. Lau urte luzez gihartua.

Eta dena papertxo baten gorabe-
heran. Baina papertxo miragarria,
jaunak. Konpromiso haundi baten
agiria sinatua. Eta hara gure La-
bairen jauna Basurain, inork uste ez
zuen lekuan papertxo misterioso
hori patrikaririk ateratzen. Abadi-
ñoko San Blas ferietan, ijitu arteko
asio tratuaren ordaintze txapurrestua
bezala. Lixtareroren edo lapur txi-
kien arteko kontugintza txorroskila
bezala. Gubernu bateko kontseilari
jaun baten irudi bikaina. Euskararen
oneraiko izan bedi Amen.

Orain Amerikatik Erromara jauzi
eginik, semaforo gorria zuri gelditu
da aita santuaren hitz hauek irakur-
tzean: "... biolentziaren bidez, gerri-
lak. El Salvadorren bakarrik, doze-
naka mila biktima eragin ditu. Oscar
Romero atzapezikua tartean dela".
Entzun al duzue ondo? Orain arte
eskuindarrak eskuindarenek ere ba
zekiten Oscar Romero indar ofizia-
lek hil zutela. Inork ez zeukan du-
darik katedralaren berta hil zuten artza-
pepiku hura noren akzioa izan
zen. Horra orain Aita Santuak zer
bertsio ekarri digun bere Amerikal-
diti. Hori duk hori Izpiritu Santua-
ren inspirazioa! Managun egin zioten
harrerak ere haserre omen da.
Zer uste zuen, ba? Jendea larria eta
bizia uzten ari den herrian, Erro-
mako goraintzi dibinoen orde, txal-
loka eta "gora zu, Jauna" ka hartuko
zutela? Inoren etxera doana bera da
hangoekin errespeta eduki behar
duena, ez alderantziz. Haundigorik
entzun behar dugu oraindik!

Reala aurrera. Zorionak. Ea bata
Europako eta beste Estatuko txal-
peldun gelditzen garen aurren. Fra-
gak "lotsa gaudu dela" dio. Ez da oi-
narri txarra berak nahi lukeen
gehiengo naturala egiteko. "Damu-
tuen legea" delakoa ez omen da
"damutuena" izango. "konbentzue-
na" baizik.

Ea "terroristak" ere "apostolu"
deklaratzaren dizkiguten. "Hiltzaile-
kin ez gara eseriko"—esan dute so-
zialistek. Eseri ez, baina eserita zau-
deten lekutik zutitu beharra bai
igoal.

Xabier AMURIZA

colaboración

«barón dandy»
versus pueblo

Como antesala de la revista,
"Barón Dandy" se ha dado a cono-
cer a través de un artículo de Al-
varo Bermejo en una inverosímil
comunicación periodística. Para
"B. Dandy" la supremacía de la
elegancia ética está por encima de
todo. Por supuesto que nos referi-
mos a su ética y no a la ética. Las
contradicciones de su presentación
nos llevan a comenzar excluyén-
dos de su filosofía, por la sencilla
razón de que no hay ética posible
sin estética. La sensación estética es
el estudio del comportamiento del
hombre frente a las artes o las ex-
periencias adquiridas a través de
ellas. Y es este influjo el que nos
encardina con el sistema ético—a
veces no admitido, pero siempre
presente en nuestros quehaceres—

de usos y costumbre sociales o de
código de principios, en el que des-
cansamos lo recto o lo equivocado.
Sin esta doble posibilidad ni podo-
mos hablar de ética. El dandy tiene
su ética por encima de todo plan-
teamiento histórico, pues como se
dice en el artículo "no es heredero
de nada", pero, por si acaso, debe
disponer de una cierta cantidad de
dinero y tener la andorra llena. Ya
se sabe, sin ello no se puede pen-
sar. (De esta forma yo enrollo al
"cubata", los cinco tenedores y la
terruña de lo ameno).

No. No puede ser así. El pensa-
miento que se propone no es nada,
por supuesto, nuevo. Se lanzan
hacia el desprestigio social. Cuan-
tan la sociedad en que viven, la
usan a cambio del apuntamiento
individual—es Mounier versus
Marx—a cambio de sentirse admi-
rados. El dandy se siente aplau-
dido. Y ya que citan a Baudelaire:

"Los poetas ante mis majestuosas
poses... en austeros estudiosos días
consumieron". Para ensalzar el
prestigio interior se lanzan al des-
prestigio del kratos o del poder.
Sus valores éticos son la destruc-
ción de la democracia o la aristocra-
cia de los otros, y ensalzar hasta
el escándalo su aristocracia, esto es,
el poder de la élite. Es un viaje
hacia atrás. Es retornar a la admi-
ración de las minorías. La vieja
canción fascista de las minorías se-
lectas con el pueblo lejos de los
maximizadores culturales. Con-
vertir el regocijo de la cultura en la
terruña de los dandys hasta que el
pueblo se rebelde. Menos mal que
ensalzan la pasión. Algo hay de
valor entre sus principios, porque
como decía Hegel imitando a
Nietzsche: "No se ha llevado a
cabo nada grande en el mundo sin
pasión". Y es necesario advertir,
por si el grupo "B. Dandy" no lo

ha hecho, que el sistema ético y la
estructura social se entremezclan y
no podemos sustraer de la pasión a
la revolución o el choque. La pa-
sión engendra otros seres, nos
amamos—por cierto, en su pro-
grama no aparece el amor, como
causalidad y fundamento de todo
movimiento, ¿a quién amar?—
fuera de nuestro ser, si no no hay
nada. Si no se llega al nihilismo
sartriano cuando decía: "un hom-
bre se compromete en la vida,
traza su propio semblante, y fuera
de este semblante no hay nada".
Este es el artificio, la paradoja de
decir a alguien que no hay nadie.
Es la distorsión del lenguaje, la
apocalipsis de la comunicación, el
metalinguaje o lo metacéntrico.
La idea hegeliana de identificar el
puro ser con la pura nada.

Por fin, arremeten contra las
ideologías—también esto ha sido
una norma del fascismo—sin saber

que, querámoslo o no, cada vez
nos vemos más arrastrados por las
ideas, por la comunicación, somos
cada vez más libres en el sentido
histórico, pero con más ataduras a
nivel de actualidad. Lo absurdo de
la libertad es someterse al dictado
de la razón individualizada y los
dandys se autoliberan de si
mismos, encadenando, torpe-
deando e insultando a los de en-
frente. Es una argucia vivencial.

Joaquín María DE EGUIA

nota de la r.

Nos vemos obligados a exigir
que todos los artículos de opi-
nión lleguen debidamente iden-
tificadas con nombre, dirección
y D.N.I. así como teléfono de
referencia si es posible. No
podrá publicarse ningún escrito
o carta que no cumpla estricta-
mente estos requisitos.